

Calcutari begirada bat

Indiako egoeraz gogoeta egiteko erakusketa jarri du Ibaratik Misio Taldeak ▶ 6



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-02-03 ▶ IV. urtea ▶ 804. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Koplen doinuak non-nahi Santa Ageda bezperan

ESKEA ▶ Goiz eta arratsaldez ariko dira etxez etxe bihar Santa Eskean

TALDEAK ▶ Elkarteek, eskolek, abesbatzek... kantatuko dute ▶ 7



Galarza eta Usabiaga. HITZA

TOLOSA ▶

'Erreleboa', bi gazteren arteko gorabeherak taula gainean

Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrekin ▶ 2



N. URBIZU

Ur biltegi berria inauguratu dute

ANOETA ▶ Arazoak ematen zituelako ordezkatu dute zaharra; lanak amaitu ez dituzten arren, irailtik bideratzen du ura etxeetara ▶ 5

ZIZURKIL ▶

Ugareren biziberritzeaz

Ugare auzoaren biziberritze aurreproiektua aurkeztu berri dute, eta 70 lagunek hartu dute parte bileran ▶ 4



Orain Zaldibian

Elbarrena industrialdean

Tel.: 943 888 232

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena





GIZARTEA ▶

Ipuin kontaketa bihar, San Esteban auzoan

Bihar, 18:00etatik aurrera, haurrei zuzendutako ipuin kontaketa izango da San Estebango auzo elkartearen. Euskaraz eta gaztelaniaz entzun ahal izango dituzte ipuinak haurtxoek eta, ondoren, txokolatada egingo dute, doan.

HEZKUNTZA ▶

HIIko matrikula egin ahal izateko azken eguna

Helduen Heziketa Iraunkorrrak (HHI) bigarren lauhilekorako matrikula egiteko azken eguna da gaur, 15:00etatik 18:00etara. Informazio gehiago 943 67 26 60 telefono zenbakian.

HEZKUNTZA ▶

Hidraulika ikastaroan izena emateko aukera

Datorren astelehenean, hilaren 6an, Hidraulika ikastarolari hasiera emango diote Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuan. Ikastaroa diru laguntzen dute Hobetuz-ek eta Europako Fondo Sozialak. Bertan izena eman nahi duten ikasketxean egin dezakete, edota 943 65 11 47 telefono zenbakian.

GIZARTEA ▶

Lanak direla eta, Gizarte Zentroa itxi egingo dute

Otsailaren 6an, 7an eta 8an, lanak direla eta, Emeterio Arreseko Gizarte Zentroa itxita egongo dela jakinarazi du Tolosako Udalak.

KULTURA ▶

‘Erreleboa’ antzezlanarekin, bi tolosar taula gainean

Gaur aurkeztuko dute lana Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktore tolosarrek, 22:30etik aurrera, Antonio Maria Labaien kultur etxean; saioa doan da

NOELIA LATABURU

Gaurkoa egun berezia izango da, zinez, Iker Galarza eta Joseba Usabiaga tolosarrentzat. Izan ere, 22:30etik aurrera, *Erreleboa* antzezlan aurkeztuko dute euren herriko Kultur Etxean.

Ernesto Caballero idazleak asmatu eta Iker Galarzak berak egokitu eta euskaratutako *Erreleboa* lana aurkeztuko du Txalo Teatra konpainiak. Hamalau urte badira jatorrizko izenburua *Reten* duen ikuskizuna estreinatu zenetik. Ikuskizun honek Caballerok idatzitako testua errespetatzen badu ere, ekoizpenak baditu zenbait «berezitasun», zuzendaritza lanetan dihardun Begoña Bilbako aipatzen duenez. Istorioko soldaduskan dauden bi gazte ditu protagonista, Algeziraseko kuarteleko garita batean zaintzan daudenak. Testua egokitzeaz gain eszenatokian Joseba Usabiagarekin batera izango den Galarzaren esanetan, «*Reten* laneko protagonistak Andaluziako eta Aragoiko bi gazte baziren ere, egindako egokitzapenaren arabera, bi mutil euskaldun izango dira agerraldian azalduko direnak, Agustín eta Joxe, Amezketakoa bata eta Ordiziakoa bestea».

1985ean gertatzen da bi pertsonaiak gauzatu duten gaubela, eta bi soldaduak ezezagunak direla hasieratik nabaritu da. Lehena, soldaduska amaitzekotan dagoen beterano ausarta eta lotsagabea baita, eta bigarrena, hasiberria, inozoa eta ezarritako arau guztiak betetzen dituena. Haatik, biak ala biak interfonotik beti gaztelaniaz hitz egiten dieten tenien-



Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktoreak. HITZA

tearen agindupean daude neoro. Gazteak, euskaldunak eta gertukoak diren bi soldaduak izaki, «edozein euskaldunek ulertzeko moduko hika hizkeraz mintzatuko dira», Galarzaren esanetan, tenienteak entzuten ez dietenean behintzat, eta agintari militarren presentzia horrek tentsio egoerak sortaraziko ditu bi gazteren artean.

«Soldaduska aitzakia da»

Beraien arteko solasaldiek agerian utziko dute gertutasun geografikoak ez dakarrela («ez adiskidetasunik ezta elkar eza-gutzarik ere»), eta bakoitzak berea defendatu behar duela. Egoerak, baina, aldakorak izango dira eta une batzuetan kontra azaltzen badira ere, hurrengoan elkarrekin bat etorriko dira. Baikortasunetik ezkortasunera dagoen bide laburra sarritan zeharkatzeaz gain, gatazkak, ilusioak eta egitasmo-

ak azalduko dizkio bataketari, «egoera horrei txinpartak atera behar diegula eta ikuslegoari konplizitate keinuak eskainiz», Galarzak aitortzen duenez. Zuzendariaren esanetan, ikuskizunean azaltzen diren «pasarte umoretsuak, poetikoak eta leunak» indartzen ahalegindu dira.

Ikuskizuna, soldaduskan burutzen den gaubela baten gauzatzen bada ere, ez da garai batean gazteentzat beharrezkoa zen zerbituz mintzatzen ezta zer zen erakustea, Bilbaoren esanetan «soldaduska aitzakia besterik ez delako». Agerraldiaren mamia, beraz, bi gazteren artean sortu daitezkeen egoeretan datza. Hala, autoritarismoa eta gizontasuna bezalako gaiak «ikuskizunaren bazar guztietatik» azalduko dira.

Derrigorrezko soldaduzka iraganeko gauza izan arren, edonork ulertzeko moduko gaia jorratzen dela azaldu dute

FITXA TEKNIKO ▶

Lana. *Erreleboa*.

Eguna. Gaur.

Ordua. 22:30ean.

Tokia. Kultur Etxean.

Antzezleak. Iker Galarza eta Joseba Usabiaga.

Esenografia. Martin Alustiza.

Argiztapena. Julen Zabala.

Jantziak. Andoni Sagardui.

Musika. Marta Alduntzin.

Zuzendaritza. Begoña Bilbao.

Ekoizpena. Txalo Teatra.

Iraupena. 75 minutu.

antzezlan honetan ariko diren aktore tolosarrek. Galarzaren esanetan, «Caballerok idatzitako testua pertsonaien obra da eta agerraldi osoa antzezlearen lanean oinarritzen da». Horrexegatik, errealeismoan murgiltzen den testuarentzako gauzatuako ekoizpenak, idazleak tartekatutako «mezuak, momentuak eta egoerak errespetatzen» ahalegindu dela diote egokitzaileak eta zuzendariak, «testua, dramaturgikoki, bikain osotuta» dagoelako.

Bilbaoren esanetan, «denbora eta espazioaren unitatea» erakusten duen ikuskizunak eszenaratze xumea du; eta «eszenatokia ia biluzik dago», Galarzaren esanetan. Ikuskizun osoak gau bakar bat islatzen duela kontutan izanik, Martin Alustizak asmatutako eszenografia eta Julen Zabalak prestatutako argiztapena egoerak laguntzeko erabiliko dituzte. Hori dela eta, garita bat bestetik ez da kokatuko oholztan eta zikloramaren erabilpenez baliatuko dira.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

POLITIKA ▶

Tolosa Bizirik ekimenaren elkarretaratzea

Erredakzioa ▶ Tolosa Bizirik herri ekimenak, Udaleko osoko bilkura zela eta, elkarretaratzea egin zuen, herenegun, Plaza Zaharrean, *Apartheid ez. Dimisioak orain* lelopean. 35 lagun inguru elkartu zen, «gure herriak bizi duen itxaropen aroan, inoiz baino beharrezkoagoa baita Udalean ideia guztiak ordezkatuak egotea benetako bakea eta demokraziaren bidean aurrera egin nahi badugu». Horregatik, herri ekimenekoek adierazi zuten, «ez dugu etsiko bazterketaren aurka, eta herri borondatze Udalean dagokigun ordezkartzaren aldeko aldarrikapenean». I. GARCIA

MUSIKA ▶
Bide Ertzean taldeak agur esango dio 'Esan bare'-ri

Bonberenean joko du gaur 22:30ean bere azken diskoaren agurra izango dena

N. LATABURU

Gaur, 22:30etik aurrera, Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko du Bonbereneako eszenatokian. Honenbestez, eta Gasteizko Azkena aretoan eta Elizondoko Lur aretoan datozen asteetan emango dituen kontzertuen ostean, amaitzat joko du talde tolosarrak *Esan bare* azken diskoarekin duela urte eta erdi hasitako kontzertu sortari. Euskal Herriko dozenaka antzoki eta aretoetan aritu dira tolosarrak. Orain, bidean geldiune bat egingo dutela adierazi dute. Bihar, berri, Samar taldea ariko da, 22:30ean.

POLITIKA ▶

Udalbatzarraren elkartasuna Etxebeste-Olano familiari

Herenegungo osoko bilkuran mozioa onartu zuen, PPrent abstentzioarekin

IMANOL GARCIA

Tolosako Udalak herenegun arratsaldean egindako osoko bilkuran, beste gai batzuren artean, Etxebeste-Olano familiari «elkartasuneko eta elkarbizitza baketsu baten aldeko mozioa» onartu zuen. Zinegotzi guztiak —PPko Anjel Yañez falta zen— aldeko botoa eman zuten, PPko Jorge Juan Outeiralek izan ezik, abstenitu egin baitzen. Belauntzan bizi den Etxebeste-Olano sendiak Tolosan duen altzari dendari su eman zioten urtarillaren 13ko gauean, kalte handirik sortu ez bazuen ere. Orain bi urte denda berari su eman zioten eta orduan guztiz kiskalita gelditu zen.

Mozioa irakurri ondoren eta bozketa egin aurretik, udalbatzarrean zeuden alderdi bakotzeko ordezkariak beren iritzia plazaratu zuten Etxebeste-Olano sendiak pairatutako ekin-tzaren inguruan. Jokin Bildarratz alkateak (EAJ) «animo mezua» eman zion Etxebeste-Olano familiari: «Bai Belauntzan jarraitzeko, herri bat udal-etxetik egiten delako, eta baita beren enpresa-proiektuan jarraitzeko ere». Bestalde, Udala-

«Elkartasun mozioa»

«Aurreko astean Tolosako enpresa bati egindako erreketa saiakeraren inguruan zera adierazi nahi du Tolosako Udalak:

Lehenik eta behin, onartezina den ekintza honek eragindako familiari Udal honen eta Tolosako herriaren babes eta elkartasuna adierazi. Familia honen lana herrigintza izan da. Horretara animatu nahi ditugu, gure babesa eskainiz. Eta, bigarrenik, erreketa saiakera zein beste edozein bortizkeria ekintza guztien gaitzespen eta errefusatzeko Norberen ideiak defendatzeko elkarriketa eta bide pake-tsua dira zilegitasuna duten bakarrak.

Gure herriak bizi duen zuhurtziazko itxaropen une

ren «babes osoa» eskaini zion, eta familiak «inguruan jende asko duela babesa ematen» nabarmendu zuen.

Onintza Lasak (EA) familiari babesa emateaz gain, «bide baketsuen» beharra azpimarratu zuen, eta «sufirimendu

hauetan, denok jarri behar dugu geure onena, oztopoak eta zailtasunak izango dituen bide honetan sor daitezkeen ezberdintasunak elkarriketan eta errespetuan oinarriturik konpon daitezken.

Bestalde, indarkeria eta bortizkeria erabiltzen duen orok jakin behar du ekintza mota horiek, konponbide eta gure herriaren gatazkaren konponbidean, oztopoak gehitu besterik ez dituela egiten eta giza ikuspegi batetik inongo justifikaziorik ez duten ekintzak direla.

Horregatik, Udal honen dei egiten dio Tolosako herriari oinarri demokratikoetan aurrera egiten, elkarbizitza baketsu baterako bidea hori soilik baita. ◀

gehiago sortzen» duten ekintzak ez dituzela «arazoak konpontzen» adierazi zuen.

Jose Mari Vieitesek (EB) «indarkeria ekintzak» gaitzetsi zituen, eta «elkarriketaren bidea» nabarmendu zuen gatazkak konpontzeko. «Garaia da

indarkeria ekintzak gaitzetsi beharrean politikoak herritarrei ikutzen dieten gaietara dedikatzeke», gaineratu zuen.

Antton Izagirrek (Tolosa Bizirik) HITZARI azaldu dioenez, «gertatutakoa ezker abertzaleari atxikitzeke interesa dago, baina ez du horrek zirikusirik». Ezker abertzaleak familiari «bere garaian elkartasuna adierazi» ziola esan eta salatu zuen «EAJren erabilera interesatua, bere trapu zikinak estaltzeko».

Oscar Renedok (PSE-PSOE) familiarenganako «elkartasuna» adierazi zuen. «Zoritxarrez, badakigu zer den horrelakoak pairatzea», gaineratu zuen. «Momentu itxaropentsu batean bizi garela uste dugu», esan zuen. Eta «desiatutako prozesuan aurre egitearen beharra» aipatu zuen.

Jorge Juan Outeiralek (PP) «elkartasuna» adierazi zion Etxebeste-Olano sendiari, eta bere abstentzioaren zergatia eta esanahia azaldu zituen: «Gustatzen zait horrelako mozio bat osoko bilkuran eztabaidatzea, baina beste kasu gehiagotan ikustea nahiko nuke eta, horregatik, abstenitu egingo naiz».

TELEFONOAK ▶
Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebeka: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 ▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 ▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900
 ▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
 ▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
 ▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621
 ▶ Leitza autobus.: 948 221015

▶ Taxia: 670420
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
 ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016
 ▶ Iurrarmendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

Ugare auzoaren biziberritze aurreproiektua aurkeztu dute

70 lagun elkartu ziren Udaleko ordezkarien eta bizilagunen artean Atxulondon

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Ugare auzoan egin-guro diren berritze lanen inguruan, herritarren parte-hartzea bultzatu asmoz, bilerak antolatu ditu Udalak. Berriki, aurreproiektuaren aurkezpena egin dute Atxulondo kultur etxean, eta 70 lagun elkartu ziren, Udaleko ordezkarien eta bizilagunen artean. Ondoren zehazten dira bileraren aktan jasotako gai zerrendaren eta bileran egondako proposatutako gaien laburpena.

Oria ibai ondoko pasealekua. 320 metro inguru dituen pasealekuak 4 metrotako zabalera izango du orokorrean. Pasealekuak barne hartzen ditu bizikletentzako bidegorria (2 metro inguru izango ditu), permeagarriak diren zerrendak (zelai-lauza), oinezkoentzako lekua eta hiri altzariak...

Auzo barruko bideen zoladura. Auzo barruko zoladura *plataforma bakarrekoa* izango da. Hau da, altuera desberdinak, espaloiak... izan ordez, erabilera ezberdinak, koloreak, hiri altzariak, zerrenda berdeak... erabiliz nabarmenduko dira.

Aparkalekuak. 104 aparkaleku izango dira markatuak geldituko direnak. Hauei gehitu behar zaizkie jabe partikularrek dituzten garajeak eta baita —provisionalki bada ere— Benito plazan ezarriko dire-

nak. Barneko bideak diseinatzeko garaian kontuan hartu dira garajeetarako sarrera-irteerak. Auzoak duen aparkaleku kopuru mugatua medio, eta Villabonako bizilagunek plaza horietariko asko okupatzeak sortzen dituen arazoak kontuan izanik, etorkizunera begira Zizurkilgo Udalak auzokideentzako eremua ezartzea planteatu dezan eskatu dute behin eta berriro. Auzoaren erreformak Villabonako zenbait bizilagunek Ugaren aparkatzeko duten ohitura galarazten ez badu, ezinbestez hartu beharreko neurria dela nabarmendu dute. Obrek dirauten bitartean auzokideek jada trenbidearen beste aldean egokitu den aparkalekua erabil dezakete.

Jolasgune eta parkeak. Aurreproiektuak hiru jolasgune-parke aurreikusten ditu. Bata, pasealekuaren amaieran kokatzen dena, pertsona helduei zuzendua egongo da. Bigarren bat haur txikiarentzat izango da (pasealekuaren erdialdean); hirugarrena, berriz, plataforma-kantxa modukoa, auzoaren atzealdean egokituko da; azken honek, gazteei zuzendua izaki, babes elementu gisa sarreraren bat izango du. Hauez gain, egoteko gunetxoak sortuko dira, *begiratoki* antzerakoak.

Iturriak. Hasiera batean 4 iturri ipiniko dira: hiru paseale-



Atxulondo kultur etxean egindako bileraren une bat. HITZA

kuan zehar (hasieran, bukaeran eta haurrentzako jolasgunean) eta laugarren bat atzealdeko plataforma-kantxan.

Hondakinen bilketarako puntuak. Hondakinen gaikako bilketarako hiru puntu kokatuko dira. Puntuok errepide berrian daudenez, auzora kamioiak sartzea ekidingo da.

Etxabe komertzialak eta garaje gisa erabiltzeko baimena. Aurreko bileretako aktetan jaso denez, etxabe komertzialak garaje gisa egokitu nahi dituenak dagokion baimena eskatu beharko du Udalean, eta honek ipinitako baldintzak bete beharko ditu.

Obrak. 2006ko irailean haste-koak dira, lehen faseari dagokionez; fase honetan proiektuaren goiko zatia ekingo diote, hau da, errepide berriaren

eraikuntzari. Lan hauek amaitu ondoren (gutxi gorabehera 2007ko martxo-apirilean) 2. fasearekin jarraituko da (ibaia-aren ondoko zatia erekin). Obra hauei 2007ko abenduan eman- go diete amaiera. Udalak Aurrerako udal bulegoan poston- tzi berezi bat ipiniko du obrek sor ditzaketena keza, arazo, proposamen eta abarrak jasotze- ko.

Geltokirako helbidea. Printzi- piaz, igogailu bat ipintzeko le- kua gordeko da. Geltokirako sarbide gisa eskailerak eraiki- ko dira, eta arrapala bat sor- tzea ere aurreikusten da.

Etxabe komertzialak. Auzoa- ren hobekuntzak tabernak, ka- fetegiak, dendak... irekitzea erraztu dezakeela uste da.

Errepide berria. Kamioien pa- soak, trafikoak eta autoen

abiadurak sor ditzaketena arazo eta arriskuei begira, errepide berriarekiko kontrola mantendu beharko da. Oinezkoentzako pasabide gehiago ipintzea beharrezkoa dela ere jaso da.

Errepide zaharra. Gaur egun, eta martxan dauden obrak di- rela eta, errepide honek arazo nabariak sortzen ditu trafikoa, autoen abiadura... direla eta. Zenbait irtenbidea: zirkulazio zentzu bakararra utzi; bi zen- tzuak mantentzen badira, apar- kaleku lerroa kentzea.

Benito plaza. Plaza honetan ez da lanik burutuko fase hone- tan, dagoeneko lantzen ari di- ren beste proiektu batzuen baitan gelditzen delako. Egun plazak ageri dituen zenbait arazori erantzuna ematea ezin- bestekoa eta premiazkoa da: ijitoak bertan finkatu dute *etxebizitza*; 4. eta 5. etxebizitza blokeetan noizean behin estolde- ria tratatzen da... Planteatu diren aukerak (aztertzeke gel- ditzen direnak): Benito plazan aparkalekua galaraztea (zati batean, behintzat), etxabe komertzialearako sarbidea bermatuz. Hornidura eta estolde- ria sareetan egingo diren hobekuntza lanak Benito plazako zonaldea ere barne hartzea.

Obren eragin potentziala eraikuntzen egoerarekiko. Sor daitezkeen arazo potentzialei begira, eraikuntzen gaur egun- go egoera egiaztatzen duen notario-txosten bat egiteko au- kera aipatu dute jabeek.

Argiztapena. Egungo gabe- ziak gainditu asmoz argiztaper- berriaren instalakuntza zen- bait irizpide jarraitzea eska- tzen da. Horrez gain, eta zeha- ki, Villabonarako oinezkoen pasabidea argiztatuko da.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAren harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 67 22 44

ILUMINAZIOA
SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegietza kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ANOETA ▶ HIRIGINTZA

NEREA URBIZU

Atzokoan egin zuten Anoetako ur biltegi berriaren inaugurazioa. Fidel Azpiroz Anoetako alkatea, Jose Inazio Otermin eta Nieves Alarcos zinegotziak, Iñigo Elosegi Ur kontsultorioaren ordezkaria eta Luis Mari Oiarbide Garapen Eramangarriako Foru Diputatua, eta baita herritarrak ere, egon ziren, besteak beste. Proiektuaren berri eman zuten, eta bertan biltzen diren uren ibilbideaz ere aritu ziren.

Aurreko ur biltegiak ematen zituen arazoak zirela eta, berria egitearen beharra ezinbestekoa ikusten zuten. Ur biltegi zaharra 1970. urtekoa zen, 600 metro kubikoko edukierarekin. Bi zatitan banatuta zegoen; pitzadura asko zeuzkan eta ur asko kanporatu egiten zen. Urrik gabe geratzeko arriskua zegoen, hortaz. Arazoak medio, 2003ko urrian giltza ganbera eraitsi eta ur ihesa hustu egin zen. Gauzak horrela, «prekarioan» jarraitu zen, 300 metro kubikoko edukierarekin eta balbula guztiak aire zabalean zeudela.

Handik urte eskas batera porlanezko letxera injekzioak jarri zituzten ur biltegi oinera eta, nolabait, oinarria ziurtatu egin zen. Aldi berean, Anoetako ur biltegia egiteko proiektua idazten ari zen, eta ur biltegiaren egoera kontuan izanik, zaharra botatzea eta berria egitea aurreikusitako zuten.

Egun, Anoeta herrian lau hartune daude ura banatzeko; «horien erabilpena beharrezkoa izanen da egun eraikitzen ari den Ibiurko urtegi hornidura martxan jarri arte».

Proiektua egiteko «herriaren beharrak» aurreikusitako zuten, eta segundoko 15 litroko ur eskaria egongo zela kalkulatu. Ondorioa 1.400 metro kubikoa egitea izan da.

Biltegia hormigoi armatuaz egina dago, eta lau metroko ur altuerako eta 4,70 metroko altuera libreko bi konpartimentu ditu, elkarren artean independenteak. «Honela, zaintze lanak erraztu egiten dira, funtzionamendua eten izan beharrik gabe», azaldu zuten inaugurazioan.

Biltegiaren zatirik handiena lur azpian dago, modu honetara ingurumenari kalte gutxiago eraginez, eta uraren tenperatura beti ongi mantenduz. Proiektua aurrera eramane duena Dario San Emeterio ingeniaria izan da, Antonio Alberdi zuzendariarekin batera.

Proiektu honen barne beste hainbat lan ere egin dituzte: iturburutako eramandideak, Ibiurko sarea...; hornitu beha-



Bertaratu zirenek proiektuaren berri izan zuten. N. URBIZU

Ur biltegia inauguratu egin dute

Ur biltegi zaharrak arazoak ematen zituela-eta eraiki dute berria



Dario San Emeterio ingeniaria, giltza ganbera atzean duela. N. U.

PILOTA ▶

Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri pilota eskolak, aurrez aurre

Derbiez gain, beste hainbat partida jokatuko dituzte gaur bi pilota eskolakoe

N. URBIZU

Gaur, 19:30ean, partida interesgarriak jokatuko dira Berastegiko pilotalekuan. Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Iturri ariko dira elkarren aurka. Derbi garrantzitsua ikusi ahal izanen da arratsaldean. Kasu honetan, Lasa-Dorronoro eta Olaetxea-Otegi bikoteak lehiatuko dira, kadeteen mailan.

Amezketako pilotalekuan ere, 20:00etan, beste derbi bat izanen da gaur. Zazpi-Iturri Amezketako eskolako Zelaia-Leunda eta Onsalo-J. Mugika bikoteek jokatuko dute elkarren aurka, nagusien mailan.

Bestalde, Aurrera-Saiazek Berastegiko derbiaren ondoren beste 2 partida izanen ditu Urnieta eta Andazpe eskolak areriko izanik, biak ere kadete mailakoak. De la Sotilla-Etxeberria eta Beloki-X. Mugika dira etxekoak kasu honetan.

Aretxabaletan 20:00etan beste partida bat izango dute Aurrera-Saiaz pilota eskolak, hirugarren partidaren. Zazpi-Iturri Añorgan du beste partida bat, jubenilen mailan. Neurketa honetan Zabala-Otaegik ordezkaturiko dute Amezketako taldea.

rreko inguruak eta hustubideak ur biltegi berriarekin lotzeko egin diren lanak. Bestalde, egindako obregatik, ibilbidearen zati handi bat eraberritu egin dute, garraio pisutsuek bidetara eraman zituzten. Urtegi zaharra bota eta hiritartu egin dute; bertan, jolasleku txiki bat prestatzeko asmoa erakutsi du Udalak.

Obrak ez dituzte bukatu, baina irailaz geroztik hango ura etxetara iristen da.

Dario San Emeterio ingeniariaren esanetan, «suerta daitzekeen suteei aurre egiteko erreserba du ur biltegi honek». Azpiroz alkateak eskerrak eman zizkien proiektuan parte hartu duten pertsona orori, «denon laguntzaz egin baita ur biltegi berria».



energia bizi

Tolosan Otsailaren 2tik 10era
Plaza Berria

Orduetara: 10-14 / 16-18
Asteburuetan: 10:30-13:30 / 16-19 Doako sarrera

Gidatutako ikastetxe-bisitak egiteko:
Ikus www.eve.es



www.eve.es www.eve.es



EVE Ente Vasco de la Energia

aurrera doan **herria**

IBARRA ▶ ERAKUSKETA



Calcuta. Hiri handi gisara leku gogorra dela dio Calcuta Ondoan elkarreak; «batzuentzat biziraupena egunean eguneko da». Argazkiari dagokionez, hiriko egoeraren adibide moduan, jendeak bilutsik ageri den gizonari ez diola arretarik eskaintzen azaldu dute elkarteko kideek. HITZA



Kaleko haurrak. Egutero 10-16 orduz lan egitera behartuta daude. Askotariko lanak egiten dituzte: zaborrak bildu, hiriko mafiarentzat mezulari lana egin, droga salmenta, prostituzioa... HITZA



Kontsultak. Larunbatero oso ilara luzeak sortzen dira Ashabariko kontsultan. Oraindik urtebete ez badarama ere, ospe handikoa da inguru osoan. 15 kilometroko distantziatik joaten da jendea. HITZA



Patxu. Beste hiru lagunekin bizi zen Sealdah-ko geltokian, Calcutan. Guztiak alkoholikoak eta tuberkulosiak jotakoak. HITZA

Indiako egoeraz gogoeta egiteko

'Calcuta: begirada zabalik' argazki erakusketa dago ikusgai Kultur Etxean, Ibarrik Misio Taldeak antolatuta

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den asteartetik aurrera eta hilaren 15a arte, ikusgai dago Ibarrik Benito Izagirre

kultur etxean Ibarrik Misio Taldeak antolaturiko *Calcuta: begirada zabalik* argazki erakusketa, Calcuta Ondoan GKE-ren lanaren inguruan.

Erakusketa honek gogoetarako gonbita izan nahi du, «ondasunik batere ez izan arren zer esana eta zer erakutsia hainbeste dutenenganako barne-topaketarako deia», hain zuzen ere. Estatistika artean gesaldurik eta galdurik geldituko ez den begirada bat; anekdotikoan trabatu eta adigalduko ez den begirada bat; jantzien zikintasunetik, gorpuzten makalduratik eta miseria gorritik haratago doan begira-

da bat izan nahi du. Azken batean, pertsonen arterko begirada bat da, gizatiarragoa eta duintasunetzkoa, elkarreak azaldu duenez.

Calcuta Ondoan elkarrea irabazi asmorik gabeko Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde katolikoa da, 1999. urtean sortua. Elkarrearen helburu nagusia gizartearen axolagabetasun osoa pairatzen dutenen ondoan egotea da. Hala, Calcuta hirian kaltetuei, eta haien giza, osasun eta ekonomia garapenera zuzenduta dauden hainbat proiektu finantzatzeko. Aldi berean, hemen duten lana gizartearen zati handi batek bizi duen utzikeria eta babesik gabeko egoerari buruzko sentsibilizazioa da, gizakiei elkar laguntzera eta espiritualki haztera gonbidatuz.

Jasotzen duten diru laguntzei esker elkarreak Indian

hainbat proiektu aurrera atera ahal izan ditu. Horien artean, aipatzekoak dira elbarri fisikoentzat eta psikikoentzat Calcutan eta Keralan egindako etxeak; horietan, errehabilitazio programak egiten dituzte okupazio terapien bidez, eta bergizarteratzea ahalbidetzen dute. Bestalde, Ashabarin (Calcuta) mediku kontsulta jarri dute; 10.000 laguni urtean osasun-heziketa eta doako tratamenduak eskaintzen dizkiete. Keralan, berriz, kalekumeei etxea eta heziketa emateaz gain, euren garapenerako aukera berriak aurkezten dizkiete. Hala, Indiako emakumearen garapenera zuzendutako hainbat proiektu bideratzen dituzte.

Proiektu hauek guztiak eta, oro har, Indiako egoera ezagutu eta horren inguruan gogoeta egiteko aukera eskaintzen duen erakusketa ikusgai, beraz, Kultur Etxean.



LEABURUKO OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea izan ezik)
 - Karta aste guztian zehar
- Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

SANTA AGEDA BEZPERA ▶

EGITARAUA ▶ HERRIZ HERRI

Bada, «baserritar jantziak soinean, makila eskuan eta ahotsa ezititan, horra jarraian, herriz herrikoak aukeran, baina, lastima, ez kopletan»:

ADUNA

16:00. Plazan elkartu eta etbez etxe eta baserriz baserri kantatzera joanen dira, entsegu tiki bat eginda gero.

ALEGIA

18:00. Larraitz auzotik Txintxarri abesbatza aterako da.

ALKIZA

17:30. Herriko plazan

elkartuko dira, geroxeago Amixuri kantuzale elkartearekin batera herrian zehar kantatzera ateraz.

ANOETA

09:45. Ikastolako atarian elkartu eta goizean zehar herrian ibiliko dira kantari bertako ikasle eta irakasleak.
10:00. Plazatik aterako dira Santa Eskean.

ASTEASU

12:00. Kultur Etxeko atarian bilduko dira, herriko kaleetan abestera joateko.

IBARRA

09:30. San Bartolome plazatik aterako dira Ospelaldera, kopia kantari.

Eguedian. Bazkaria, Sendi-Ekintza elkarte.

17:00. Plazatik, Eguterladera joanen dira abestera.

IRURA

09:30. Ikastolako ataritik aterata, aurrena Goiko Auzora joanen dira, gero herri guztian ibiltzeko.

LEITZA

Goizean. Ume eta gaztetxoak herriko etxeetan ibiliko dira eskean kantari, lagun koadrilaka.

Arratsaldean. Baserrietara joanen dira eskera, era berean.

18:00. Plazan elkartuko dira nahi duten guztiak, trikitilariekin herrian barrena kopia kantari ibiltzera.

Ondoren. Arratsaldekoa, Karrapean, Kultur Taldearen eskutik.

TOLOSA

16:00. Olarraingo taldea zentrotik aterako da.

18:00. Gure Txokoa elkarte, Orfeoiko taldeko bat, Amaroizko taldea, bakoitza bere lokaletik aterako da kopia kantari.
19:30. Lizardiko taldea,

Ero-Etxe eta Emendek taldeak ere euren elkarteetatik aterako dira Santa Eskean.

VILLABONA

16:30. Jesusen Bihotza ikastolakoak Zentroan elkartu eta herrian barrena ibiliko dira eskean.

Iluntzean. Eliza ondotik aterako dira, Eresergi abesbatzarekin batera.

ZIZURKIL

16:00. Zizurkil Goiko plazan elkartu eta inguruan ibili ondoren, hilerri aldeko auzoan ariko dira kantari, San Millan eskolako Guraso Elkarteak deituta.

JAIONE ASTIBIA

Gaur San Blas, erroskilen eguna; bihar, San Andres, baina biharamoneko santuaren bezpera da ospakizuneko aitzaki: zeinek daki noizko ohiturari jarraiki, etxez etxe, baserriz baserri, atariz atari, eskean ibiliko dira hara eta hona kopia kantari. Bihar, Santa Ageda Bezpera dugu, Santa Eskean ibiltzeko eguna.

Eta hala, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri askotan ere badute kopia kantari ateratzeko ohitura, eta aurten asteburua egokitu denez, gainera, herri-tarren parte-hartze handiagoa espero dute zenbait lekutan; ikastetxeetan, berriz, jai izangatik ere, batzuk behin behin jaialdiari eutsi diote eta kalejirak mantenduko dituzte. Esate baterako, Zizurkil San Millango Guraso Elkartearen eskutik eginen dute, eta Villabonako Jesusen Bihotzako, Anoetako eta Irurako ikastolakoak ere aterako dira eskera. Aitatzekoa da Anoetako ikasle zaharrenak eguerdi aldera Irurakoengana joanen direla, handik aurrera elkarrekin ibiliz. Bestalde, hala nahi duten anoetar guztientzat gaur iluntzean, 20:00etan, entsegua antolatuta dago parrokiaren, biharko koplak prestatzeko.

Alkizan iaz berreskuratutako ohitura zaharrari aurten jarraipena emanen diote, eta alkizar guztiak gonbidatu ditu

Bihar Santa Ageda Bezpera eguna: 'Etxe guztiak kantuz pozteko aukeratua deguna'

Goizetik hasi eta gaueraino, herrietako kale nahiz baserri ataritan, non-nahi, trikiti, pandero eta makilen erritmoan, koplak entzuteko eta kantatzeko aukera



Bihar, batean eta bestean, Villabonako hauek bezala, kopia kantari aterako dira adin guztietakoak. J. ASTIBIA

Amixuri kantuzale elkarteak. Bide beretik, Asteasun sortu berria den kantu taldeak egin du abestera ateratzeko deialdia. Alegian, ordea, Txintxarri abesbatzaren eskutik egiten den eskea ohiturazkoa da, eta Larraitz auzotik ateraz, Kalebera eta Kalegora egin ondoren, plazan amaituko dute, beti *Dios te salve*-rekin hasten dituzten kopia saioekin.

Ibarran berrikuntzekin dutoz, berriz, Hauspoa Kultur Elkarteak, egun osoko egitaraua prestatu baitute biharko. Horrela, bazkaria tardean dela, 50 bat baserrietara joanen dira kopia kantari. Gainera, Iparraldeko dozena bat lagun ere gonbidatu dituzte festa hone-tan parte hartzera.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Hemeroteka. Gure web orrian, eguneko berriez gain, gure egunkarian oraindano argitaratu diren berriak ere ikus ditzakegu. Horretarako nahi dugun herrian sakatu eta zerrenda aterako da; edo *Bilaketak* atala erabiliz; edo *Aurreko aleak* atalaz baliatuz.

iragarki laburrak ▶

LANA

Iurgina. Iurgin lanetarako laguntzaile behar da. 656 41 68 08.
Tabernaria. Anoetan, neska eskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91ra.

Geriatría-erizaina. Eskarmentua duen geriatría-erizain laguntzaile gaztea eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko, astelehenetik larunbatera, orduka edo egun erdirako, Tolosa-Villabonan. 676 78 96 68 (20:00- 22:00).

GALDUTAKOAK

Txakurra. Txakur umea galdu da Hernialden. Pekines gurutzatua eta marroi kolorekoa. 943 65 39 55.

ALOKERA

Pisua. Abaltzisketan pisu bat

alokatzen da. 645 73 45 84.
Tolosa. Pisua alokatzen da Tolosan altzariekin. 943 67 10 20.
Jaka (Espainia). 3 logelako etxebizitza alokatzen da, eguneko. 635 75 02 93.



AGENDA ▶

ANTZERKIA

Tolosa. Erreleboa. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga aktoreekin. 22:30ean, Kultur Etxean.

DEIALDIAK

Alto. San Inazio jaiak prestatzen hasteko lehendabiziko bilera. 22:00etan, Elordi elkartearen.
Amezketak. Euskara Elkartearen bilera. 19:00etan, balio antzeko gelan.

HITZALDIAK

Villabona. La senda aborigen liburuaren inguruko hitzaldi-egtabaida. Guillermo Piqueroren eta Koldo Urrutiaren eskutik. 20:00etan, Gaztetxean.

JAIK

Tolosa. San Blas auzoa. 11:00etan, meza nagusia eta produktuen bedeinkapena; 12:30ean, toka txapelketa; 18:30etik 21:30era, Etxabe anaiak.

MUSIKA

Tolosa. Bide Ertzean. 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

Leitza. Hany Abu-Assad zuzendariaren *Paradise Now*. Gaur 19:30ean, eta etzi 22:30ean, zinema aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Olarreaga, J. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaso, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...
19:00-21:00. *Tolosaldeko* ahotsa (errepikapena).
21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Hala Bedi irratia saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
21:00-22:30. *Arkako show* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Andregai soinekorik gozoena

TOLOSA ▶ Jose Mari Gorrotxategi, Maria Rivera eta May Gorostiaga protagonista San Blas opilez egindako andregai soinekoaren aurkezpenean



Ekzerretik hasita, Jose Mari Gorrotxategi, May Gorostiaga, Maria Rivera, Yolanda Garcia eta Miguel Angel Ruedas. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosarra erroskilen egi-
lea. Tolosarra soinekoa jantzi eta eraman zuena. Eta tolosarra festa animatu zuena. Hiru tolosar, besteak beste, izan ziren protagonista herenegun Zarautzen egin zen moda eta gastronomiaren arteko uztartketan.

Gaur San Blas eguna dela eta, garai honetan hain estimatuak diren opilak eta andregai soinekoa lotzea bururatu zitzaion El Atelier Nupcial-eko

Yolanda Garcia zarauztarrari. Bi alor desberdin hauek erlazionatzeko joera hau munduko pasarella ezagunenetan zabaldu da azkenaldian. Zein gozogilerengana jo horrelako eskarri berezi batekin? Tolosako Gorrotxategirengana, nola ez! «Betidanik gauza berrietara irekita egon delako», bere hitzetan.

Lanean hasi zen: diseinua pentsatu, zirriborroa egin, San Blas opilak hartu eta eranstean joan zen banan bana. Azkenean 256 opil behar izan zituen,

neurri desberdinetakoak, argazkian ikus daitekeenez.


Jendaurrean aurkezteko Gipuzkoako neska dotoreena aukeratu zuen: gaur egungo Miss Gipuzkoa, Maria Rivera tolosarra. Aurretik, andregai eta senargai jantzien desfile txiki bat izan zen. Horretarako Miguel Angel Ruedas Mister Gipuzkoa eta Laura eta Haizea modeloak izan zituen laguntzaile. Eta aurkezle lanetan May Gorostiaga showman ezaguna izan zen. Miss Gipuzkoa «jateko moduko» zegoela esan zuen. «Mun-

duko miss gozoena» izendatu zuen Jose Mari Gorrotxategi ekitaldiaren amaieran.

Ekitaldian bildutako jendeak harrera ona egin zion proposamen orijinalari. Ondoren, opilak jateko eta Ameztoi txakoli apartua —beste berrikuntza— dastatzeko aukera izan zuen.

Norbaitek ez badu oraindik sinesten, Zarauzko Munoan dagoen dendako erakuslehoian ikus —eta goza— dezake datozen egunetan. Dotorea, eta gozo-gozoa.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iker Gurrutxaga. 9 urte.
Zorionak familia guztiaren partetik. Ondo pasa!



URTE ASKOAN
Tere Albizu.
Zorionak familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara: Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA** Udaltzako bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!